

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

kitzikatu	«...prest neukan barrua kitzikatzeko , animua pizteko, maitasun epel hordigarria eskaintzeko.»
hordigarri	«...prest neukan barrua kitzikatzeko, animua pizteko, maitasun epel hordigarria eskaintzeko.»
zelatatu	«...poliziak gaztea zelatatu eta, azkenean, bonba-arentatu bat egiteko biltzen ari zen talde bat harrapatu zutela.»
ezelango	«...pentsatzen egon ostean konturatu naiz ez daukadala ezelango gorrotorik.»
onddo	«...paseo luzeak ematen eta, garaia zenean, onddoak biltzen.»
nire golkorako	«Pareta grisa botila huts erraldoi baten modukoa zela pentsatu nuen nire golkorako .»
ostrukak jeztera bidali	«...ostrukak ferratzera bidali baininduen.»
karkaxak	«...osasun arazoak izan nituen, itolarriak, karkaxak , ezinegona...»
tema	«Orobat, sekulako tema hartu zuen...»
nabardura	«Ordu arte, egunero handik igaro arren, ez nintzen nabardura horretaz ohartu ere egin.»
oraino	« Oraino ez nekien handiagoak entzuteko ginela.»
putzil	«Orain ere ibili haiz putzil horrekin!»
aste bi bai	«Orain dela aste bi bai . Badakizu zelakoak diren mezu horiek...»
durundi egin	«...oihartzun siniestro batez egiten zuten durundi bere burmuinean.»
aldarte	«Nolakoa ikerketa-epailearen aldarte a, halakoa izango zen eskakizuna.»
neskatiko	«Niregana bihurtu ziren neskatikoaren begi borobil ilunak.»
mardul	«...nire liburuki marduletan , filosofo vienarraren psikologia, poesia, filosofia eta matematika aztertu baitzituen...»
sastako	«Nire eskuak, sastakoan , hormaren tenperatura bereganatu zuen.»
forzeps	«Nik forzepsa aholkatzen dizut.»
hein	«Neronek eman diet albistea banaka iritsi diren heinean .»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

men egin	«Nekatuta zegoen aitaren esanei men egiteaz .»
herresta	«Nekatu itxuran beti, oinak herrestan ekartzen zituen, zangoak altxatzeak lanak emaki nonbait.»
emaki	«Nekatu itxuran beti, oinak herrestan ekartzen zituen, zangoak altxatzeak lanak emaki nonbait.»
akuilu aski	«...mehatxuak eta pintadak akuilu aski izanen zirela morroia Madrilgo bidean emateko.»
ei	«Loewenthal harrizkoa ei zen eta.»
gelaxka	«Lisboako portu ondoko etxe zaharkitu bateko gelaxka ziztrin batez, eta Angolatik heldutako neska batez...»
ziztrin	«Lisboako portu ondoko etxe zaharkitu bateko gelaxka ziztrin batez, eta Angolatik heldutako neska batez...»
irri-karkaila	«Lineaz bertzaldetik, lagunaren irri-karkailak ailegatu zitzaizkidan...»
besta	«Liburuak, apunteak, bestak ... Erantzukizun eta bizimodu berrien oparizat jo nuen gogoaren berpizte hori.»
motel	«Leku erosoak duk motel : itxarotea, ez duk besterik egin behar.»
franko	«Lehenbiziko bi orduetan franko ongi joan ziren gauzak.»
barrundatu	«...lehen itxura batean barrunda litekeen arrazoa baino garrantzi handiagorik.»
kandido	«Konturatu naiz guztiz pertsona kandidoa naizela ni.»
kontuak atera	« Kontuak atera , taxi driver ere ez dut ikusi oraindik...»
konkiloker	«...kontent jakin ere, ez nuela gehiago ikusiko konkiloker hura.»
ekarki zidan	«Kaxa bat txakolin ekarki zidan opari.»
tristexko	«Jon eskalatailearekikoak goibel eta tristexko atxiki zuen uda guztian.»
atxiki	«Jon eskalatailearekikoak goibel eta tristexko atxiki zuen uda guztian.»
pagotxa	«Jon ere lagun engaiatua zen; mendiarekin, ordea. Ikusiak ikusi, pagotxa .»
zantzu	«...izerdi keruaren azpian sumatzen zituen disolbatzaile eta akriliko zantzuak argiro adierazten zuten bezala...»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

zozo	«...irakurle zozoenak ere aitortu behar egin du Borges ez dela izan gau bateko zaparrada soila literaturarentzat.»
dolu	«Inork ez du dolurik egingo haren alde.»
gibelat	«Ilea ongi moztua zeraman eta gibelat orraztua.»
hagitz	«...ikuspegi psikofisiko hagitz interesgarri batetik.»
ikusi ez beste barik	«Hori esan dit ikusi ez beste barik .»
enparau	«Hogeita sei lagunetatik hogeiri heriotz-zigorra eskatu die. Beste enparauei hogeita hamar urteko kartzela.»
profil	«Hizkuntz eskakizuna 0 profilera jaitea izan zen lehen neurria.»
barreiatu	«Hirian ere albistea erraz barreiatu da eta, antza denez, huelga bertan behera geratu behar dela erabaki dute...»
higuin	« Higuinez eta minez, modu gaitz horixe erabiliz erraten dio agur Enmak birjintasunari.»
aldarri	«...heriotzara kondenatzeko aldarria idatziko zuen.»
areago	«Hau guztia gutxi balitz, erromatar autodidaktaren jakintza areago doa...»
xeraka	«Hasieran, xeraka eta laztanka hurbildu zitzaidan.»
eseki	«Hasieran, piztu gabeko zigarroak esekitzen nituen ezpainenetan.»
eraldatu	«Hasieran, bion artekoa oso ondo zihoan; eraldatu egin ninduen, eta onerako.»
peto-peto	«Harkaitz zorionekoa Burlatako ale peto-petoa zen.»
piura	«Haren piuratik , begirada dut oroitzapenik tinkoena: hotza zen...»
birao	«Haren biraoak eta hitz ustelak!»
ondare	«Hala erabaki genian aspaldi, taxiston batzarrean, eta ezin diok ondare horri uko egin.»
urdinu	«...hainbat urtetako gorrotoak, gorroto urdinuak , hitz batean esan behar bada.»
horaila	«...goizeko haize epelak ile solte horaila laztantzen diola.»

Izen-deiturak:..... Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

pragmatiko	«Giza gorputza oso pragmatikoa da, erabiltzen dena sendo, tamaina ederrekoa...»
ondo	«Gertaerak ondo utzi zuen etxeko giroan.»
beta	«Gaur ez du oihuka irteteko betarik izan.»
bertze	«Gau batean, bertze ibilgailuei biderik eman gabe sartu zen biribilgune batean...»
izpitxo	«...gaitza uxatuko ote zuen itxaropen izpitxo galdu gabe.»
futitu	«... futitu egingo zela Borges Enma Zunzen zorigaitzaz, ezen idazleari dagokion nekerik txikiena inondik inora hartu gabe...»
ezen	«...futitu egingo zela Borges Enma Zunzen zorigaitzaz, ezen idazleari dagokion nekerik txikiena inondik inora hartu gabe...»
erudito	«...Frei Nothonen gainerako zeregin eruditoak ahantzi gabe.»
fiskeria	« Fiskeriez aritu ginen, bazkariaz, ikasketez-eta.»
deus	«Ez zuen deus ikustekorik gure alabaren bihotza anarteraino hunkitu zuten ikastolakumeekin.»
adu	«Ez izan adu txarrekoa.»
oparo	«Ez dela maiz aurkitzen antzeko irudimen oparorik eta halako luma treberik bazterretan.»
tentu	«Ez dakit, tentuz ibili behar dut. Bestela Henrik pentsatuko du tripazain hutsa naizela.»
tripazain	«Ez dakit, tentuz ibili behar dut. Bestela Henrik pentsatuko du tripazain hutsa naizela.»
likitsu	«...eta zerbait likitsua , itsaskorra ukitu du.»
asebeteta	«Eta pozik geratuko naiz. Eta asebeteta .»
berun	«...eta Pariseko neska horren istorioen oroimenak berunezkoak bailiran sentitzen zituen eta, barne-barnean.»
iruzur	«...eta papeleoan iruzur eginez bidali zituela denak.»
usnatu	«...eta onuragarria Albertorentzat: ordura arte " usnatutako " oroitzapen horiek guztiak gogotik kentzea...»
ezereza	«Eta ni isilik geratu naiz. Ezerezari begira.»